



**AGINDUA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO
SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BAIMEN OROKORRA EMATEN
BAITZAIE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO
OROKORRAREN SAILEI ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE
PUBLIKOA OSATZEN DUTEN GAINERAKO ENTITATEEI EUSKO
JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA SA (EJIE) SOZIETATE
PUBLIKOARI ENKARGUAK EGITEKO**

EJIE sozietate publikoa Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita dago honako artikulua hauekin bat eginez: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 6.2 artikuluari dagokionez; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 2.3.c) artikulua.

EJIE sozietate publikoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak –horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora– bere 32.2.a) artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen dituela egiaztatuta, eta dagokion prozedura izapidetu ondoren, 2019ko ekainaren 18an, Gobernu Kontseilua EJIE pertsona bakarreko sozietate publikoaren Batzar Nagusi Orokor Unibertsal gisa eratu zen eta sozietate horren estatutu berriak onartu zituen.

Estatutu horien 1.3 artikulua onartzen du EJIE sozietate publikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen bitarteko propio pertsonifikatua dela. Horren ondorioz, Administrazio horren sailek eta entitate horiek mandatuak eman ahalko dizkiote lanak, zerbitzuak eta haren helburu sozialarekin lotutako edozein jarduera betetzeko, betiere administrazio-ahalak baliatzeaz ez badakarte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko den uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. Tituluak, bere bigarren atalean, «Enkarguen araubidea», arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izaera duten ente instrumentalei ematen dizkieten enkarguak. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauerei buruzko Legearen testu bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartuak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa mugatzen du.

Dekretu horren 64.1 artikulua xedatzen du enkargua agintzen duen erakundeak espediente bat egin behar duela, eta espediente horri erantsiko zaiola bitarteko propio eta zerbitzu tekniko atxikita dagoen sailaren baimena, salbu eta sail horrek baimen orokorra emana badu. Baimen orokor hori Kontratazio Publikoa Euskadin plataforman argitaratuko da.



Prozedura-ekonomiaren eta administrazio-eraginkortasunaren arrazoiek komenigarri egiten dute baimen orokorra erabiltzea, baldin eta horrek eragozten ez baditu bitarteko propioa atxikita dagoen sailari dagozkion bitarteko propioa babesteko eta kontrolatzeko betebeharra eta erantzukizuna, eta bere horretan uzten bada sail horrek, salbuespenez, baimena ez emateko duen ahalmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko den uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 64.1 artikulua aurreikusten dituen arrazoak ematen badira. Arrazoi horiek ematen direnean EJIE sozietate publikoak jakinaraziko dio atxikita dagoen sailari.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan xedatuta dagoenaren babespean, eta Jaurlearitzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Baimen orokorra ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailei eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateei enkarguak emateko EJIE sozietate publikoari.

Bigarrena.- Salbuespenez, EJIE sozietate publikoak eskatuta, eta informatika eta telekomunikazioen arloan eskumena duen zuzendaritzak alde aurreko txostena eginda, enkargu bat egiteko baimena ez ematea erabaki ahal izango da, modu arrazoituan, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 64.1 artikuluan aurreikusitako arrazoien bat ematen bada.

Hirugarrena.- Agindu hau argitaratzea Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman.

Vitoria-Gasteiz,

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUA